



## *Maria Pilar Peñalba Arrieta*



2020ko martxoaren 16an hil zen, 98 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Ai, heriotzaren hotza  
goibeldu zaigu bihotza  
ilunak, baina, argia dakar  
beti urtzen da izotza.*

*Ai, bizitzaren beroa  
bakea ta endredoa  
zure hitzekin, zure printzekin  
loratuko da geroa.*

*Ai, amuma, ai, oroimin  
eskerrak ez den oro min  
Elgoibarreko zeru gainetik  
zuk gauero dir-dir egin.*

Etxekoak



## *Juan Carlos Cebrian Carrero*

2020ko ekainaren 3an hil zen, 48 urte zituela.

*Maitasunez inguratua joan zara, hutsune handia utzita.  
Maitasun taupadek besteengan irauango dute.*

Aintzaineren lagunak



IV. URTEURRENA

## *Mikel de Pablo Cid*

2016ko ekainaren 14an hil zen, 30 urte zituela.

*Beti gurekin, Mikel.*



## EUSKARALDIA

### nahi eta ahal duzuen ENTITATEENTZAT

Elgoibarko entitateek Euskaraldian parte hartzea da asmoa.  
Proposamena da entitateetan *ariguneak* identifikatu eta sortzea.  
Helburua: herriko entitateetan euskaraz gehiago egitea.

#### Horregatik egon nahi dugu zuekin:

Euskaraldiaren bigarren edizioa motz-motz azaltzeko.  
*Ariguneak* zelan sortu esateko.  
Zuek animatu eta gure laguntza eskaintzeko.

#### Nahi al duzue zuengana ere joatea?

#### Esaguzue eta gustura bilduko gara zuekin

Ekainean, uztailean edo irailean, zuek nahi duzuenean.  
Labur-labur: aurrez aurre, telefonoz edo on-line.



elgoibar@euskaraldia.eus



943 741 626



625 709 365

#### 800 entitate inguru daude Elgoibarren:

- Udala eta bere arduraren dauden erakundeak.
- Ikastetxeak.
- Elkarte eta gizarte-mugimenduak.
- Merkatariak eta ostalariak.
- Enpresak eta industria-mundua.

#### Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea



facebook.com/euskaraldiaelgoibar



twitter.com/EuskaraldiaElg2



instagram.com/euskaraldiaelgoibar



T.me/euskaraldiaelgoibar



**B**izitza lehentasunak markatzen pasatzen dugu, eta lehentasunen hierarkia hori areagotu egin da konfinamenduan. Zer da garrantzitsua gure bizitzetan? Zer ez? Zeintzuk dira gure oinarrizko beharrak? Lehentasunak markatzea izatez ez da negatiboa, gure norabidearen berri ematen baitigu, beharrezko ditugunak baloratuz eta nahitaezkoak ez direnak baztertuz. Zer gertatzen da, ordea, albo batera lagatzen ditugun eremuak beti berberak direnean? Zilegi al da osasuna, etxe bakoitzeko egoera ekonomikoa edota gure ongizatea joan daudenean beste aspektu batzuei ere garrantzia ematea?

Argi izan behar dugu gure bizitza ez dela ardatz bakarraren bueltan osatzen, eta gure bizitzako aspektu guztiak elkarreraginean daudela. Hori horrela izanik, alderdi guzti horiek hartu behar ditugu kontuan gure existentzia ulertzeko, gure beharrak (pertsonalak eta kolektiboak) identifikatzeko eta horien arabera jokatuzeko. Horrenbestez, esan dezakegu zilegi dela osasunaz, etxe bakoitzeko egoera ekonomikoaz edota gure ongizateaz gain, besteak beste, harreman sozialei, ospakizunei eta euskarari ere garrantzia ematea, hierarkia baztertzailerak alde batera utzi eta gure komunitatea osatzen eta berezi egiten duten

*“Ez da kasualitatea beti alderdi berberak izatea gure lehentasunetan azken lekuak betetzen dituztenak”*

## Lehentasunak

aspektuak ere ezinbestekotzat hartuz.

Ez da kasualitatea beti alderdi berberak izatea gure lehentasunetan azken lekuak betetzen dituztenak. Baina alderdi horiek hierarkian baino elkarreraginean ulertuko bagenu agian lehentasunak beste modu batera ulertuko eta markatuko genituzke, eta euskara beste hainbat asperturekin batera lehen lerroan kokatuko genuke, euskarazko hedabideei behar luketen garrantzia emanez, tokian tokiko egitasmoak bultzatuz, itxialdian euskarak tokirik izan ez duen etxeetan eraginez... azken finean, behar kolektibo hori mahai gainean jarri eta beste aspektuak alde batera utzi gabe, premia horri erantzuna emanez.

Gure lehentasunak, ordea, hierarkia kapitalistaren esanetara daude, eta beraz, zaintza-sareekin eta beste ha maika herri egitasmorekin gertatu den bezala, erantzunen bat ematekotan, periferiatik eta txikitasunetik eman beharko diegu irtenbidea behar horiei.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaoa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► **ESKERRAK UDALARI IGANDEKO DIANAGATIK**

Elgoibarko Udalari eskerrak eman nahi dizkiot lerro hauen bitartez pasa den igandean, Trinitate jaietan, diana berezia antolatu zuelako txistulariekin Elgoibar guztitik. Horrelako egunetan kaleak musikaz alaitzeak Elgoibar polit eta alaiagoa egiten du.

J.P.

### ► **URAZANDI AUZOKO OBREI BURUZ**

Urazandi Auzo Elkartetik auzoko irisgarritasuna hobetzeko obrei buruzko berriak auzotarrei jakinarazteko konpromisoari eusten diogu, eta jakinarazi nahi diegu eskailera mekanikoak bi igogailurekin ordeztuko obrak 2021eko udaberrirako amaitzeko konpromisoa hartu duela Elgoibarko Udalak. Al-biste hau prentsan irten zen, eta informazio haren arabera, obrak irailean hasiko dira, eta datorren urteko udaberrirako igogailuak erabiltzeko moduan egongo dira. Era berean, bi igogailuen obrek berarekin dakarte auzoaren beheko aldea birmoldatzea eta hobetzea. Obrak iraun artean autobus zer-bitzu bat jarriko dute martxan, baina berrikuntza horien gaineko informazioa aurrerago emango dugu. Hasiera batean obra hau aurtengo udaberria baino lehen egitea aurreikusita zegoen, baina COVID-19aren pandemiak atzeratu egin du lanen hasiera. Dena dela, obrak aurtengoa egin ahal izateak osasun egoera nabarmen hobetu dela esan nahi du, eta horretaz izugarri pozten gara.

Bestalde, Udalaren eta Elkartearen aldetik auzoak herriarekin duen lotura hobetzeko lanean ari garela ere esan nahi dizuegu, zehazki esanda, King Kongeko zubia aldatzeko lanez ari gara. Obra honek autobus geltokiaren ondoan igogailu berri bat jartzea ekarriko du, bidea eta errepidea gurtzatzen dituen zubia lotzeko. Obraren konplexutasuna eta garrantzia kontuan hartuta, hainbat ideia aztertzen ari gara. Ideia horiek guztiak auzorako sarbidea hobetzera, eta are garrantzitsuagoa dena, Donostiarako herriak duen autobus-geltoki bakarrerako sarbidea konpontzera bideratuta daude. Herritar guztientzako, eta bereziki, mugikortasun murriztua dutenentzako ezinbestekoa izango da. Era berean, lanean ari gara ibilgailuei auzoko goiko aldera iristea errazteko. Udalak bere garaian helarazi genion eskaera bat aztertzea aurreikusi du, Herri Eskolara doazen autobusek ibilgailuen zirkulazioa oztopa ez dezaten.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkizuegu gure kontura biltzen dituzuen iradokizunengatik. Denak hartzen ditugu kontuan, baina eskertuko genizueke iradokizunekin batera zuekin harremanetan jartzeko moduren bat zehaztea, zuen kezkei buruzko informazio zuzena eman ahal izateko. Eskerrak eman nahi dizkiogu BARREN astekariari ere, Urazandi auzoko irisgarritasunari eragiten dioten albisteen aurrean erakutsi duen sentsibilitateagatik.

Urazandi auzo elkartea

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhar:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzik argitaratuko.

## SAUBER SEV03 INDUKZIO PLAKA



**269 €**

- Segurtasun-deskonexioa
- BOOSTER funtzioa 3 zonatan (28 zm, 18 zm, 15 zm)
- Banakako programatzailea. Haurrentzako blokeoa.

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## Konfinamenduan hobera egin dute birziklapen datuek Debabarrenean



**D**ebabarreneko Mankomunitateak eskualdeko hondakin bilketari buruzko datuak eman ditu, eta horien arabera, herritarrek gehiago birziklatu dute 2020ko apirilean, iazko hilabete berean baino. Hondakin konpostagarrren bilketa %14 handitu da (iazko apirilean 345 tona batu ziren, eta aurten, 394), eta aldiz, errefusa %5,37 txikitu da (1.118 tonatik 1.058ra). Gaikako bilketaren tasa, bestalde, %56an mantendu da.

Mankomunitateak hondakin organiko tona bakoitzeko 136 euro ordaintzen ditu, eta errefusa tona bakoitzeko, aldiz, 181 euro. Hortaz, zenbat eta gehiago birziklatu, Debabarreneko Mankomunitateak gutxiago ordaindu beharko dio eskualde gisa Hondakinen partzuergoari, eta zerbitzua hobetzeko diru gehiago inbertitu ahal izango du.

### Konfinamenduaren eragina

Konfinamenduak eragina izan du hondakinen birziklapenean, arduradunen ustez. Iazko apirilean 204 tona beira bildu ziren, eta aurten 142. Arduradunek uste dute taberna eta jatetxeak bi hilabetez itxita egoteak eragina izan duela horretan. Aldiz, ontzien hondakinak, 122tik 149ra igo dira. Paper eta kartoia- ren kopurua ia berdin mantendu da. Iosu Arraiz Mankomunitateko presidentek eskertu egin du eskualdeko bizilagunek birziklatzeko konpromisoa. Horri lotuta, eta ekainaren 5ean Ingurumenaren Nazioarteko Eguna izan zela kontuan hartuta, hondakinen kudeaketa arduratsuen inguruan hausnartzera bultzatu nahi ditu Mankomunitateak herritarrak. Debabarrenean 427 kilo hondakin sortzen ditu biztanle bakoitzak batezbeste urtean; guztira 31.000 tona hondakin baino gehiago, eta behar bezala kudeatzen ez badira, airea eta ura kutsatzeko arriskua dagoela ohartarazi dute. Gaur egun, Debabarrenean sortutako hondakinen %54 birziklatzen dela esan dute, eta kontuan hartuta sortzen diren hondakinen %10-12 soilik dela birziklaezina, Debabarrenean hobetzeko tarte handia duela gaineratu dute.

### 8-14 urte bitartekoentzako ipuin lehiaketa Mendaron

8 eta 14 urte bitarteko mendarotarrentzako ipuin lehiaketa antolatuta du Mendaroko Udalak, gazteen artean literatur sormena sustatzeko. 8tik 10 urtera bitarteko umeek (2009tik 2011ra jaiotakoek), euskarazko ipuin bat sortu beharko dute eta ondoren bideo bat grabatu beharko dute idatzi duten ipuina irakurtzen ageri direla. Gehienez ere bi minutuko bideoa izan beharko da. 11 eta 14 urte artekoek ere bideo bat grabatu beharko dute euren ipuina irakurriz, baina hiru minutura arteko iraupena izan ahaliko du. Bideoak honako e-posta eta whatsapp zenbakira bidali behar dira: [kultura@mendaro.eus](mailto:kultura@mendaro.eus) eta 685 720 010 telefono zenbakira. Ekainaren 30a izango da lanak bidaltzeko azken eguna. Parte hartzaileen artean sei liburu elektronikoko zozkatuko ditu Mendaroko Udalak, sail bakoitzeko hiru.

### Udako ikastaroetarako dirulaguntzak

Elgoibarko Udalak dirulaguntzak emango ditu Udako Euskal Unibertsitateak Eibarren, Iruñean eta Gasteizen emango dituen ikastaroetarako. Matrikularen kostu osoa ordainduko die Elgoibarko ikasleei, langabeei, pentsiodunei eta jubilatuei, eta matrikularen erdia ordainduko die lanean ari direnei. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, eta aurten, ikastaroa hasi arte egongo da izena emateko aukera. Aurten 12 ikastaro eta bost jardunaldi egongo dira aukeran UEUn. Koronabirusaren eraginez, neurri bereziak hartu dituzte antolatzaileek: Talde txikiak izango dira, ikastaro laburrak eta 10 euroko prezioan.

Era berean, Elgoibarko Udalak EHUk eta HiK Hasik antolatutako ikastaroetarako laguntzak ere emango ditu, Euskara Sailaren bitartez. Informazio gehiago 943 744 366 telefonoan edo [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) helbidetan.

## Elgoibartarren oinarrizko premiak bermatzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Gurutze Gorriak



Elgoibarko Udalak 8.000 euroko dirulaguntza emango dio Gurutze Gorriari herrian egiten duen gizarte-lana indartu eta behar handiena dutenen oinarrizko premiak bermatzeko lanarekin jarrai dezan. Akordio hori Udala Gizarte Zerbitzuetatik egiten den lanaren osagarria izango da. Ondorengo jarduerak finantzatzeko erabiliko dute dirua: elikagaientzako eta nork bere burua nahiz etxea garbitzeko produktuentzako bonoak, herriko saltokiekin egindako hitzarmenaren bidez, ahulezia egoeran dauden pertsonentzat; premia zehatzetarako bonoak (eskolako materiala, adingabeentzako arropa...), baldin eta beste bide batzuetatik diruz laguntzen edota hornitzen ez badira; zuzeneko dirulaguntza, aipatutako produktuak erosteko, Gizarte Zerbitzuek edo Tokiko Gurutze Gorriak egindako balorazioaren arabera egokitzen dituzten pertsonentzat; Udaleko Gizarte Zerbitzuek edo Tokiko Gurutze Gorriak antze-man ditzaketen bestelako premiak asetzea. Sendagaien hornidura bide honetatik kanpo geldituko da, horretarako beste bide batzuk erabiltzeko aukera baitago. Era berean, etxeko ekonomiari buruzko tailerrak emango dituzte (urrez aurrekoak edo streaming bidezkoak); Eskola arrakastari buruzko programak ere lagunduko dituzte, eta elkartearen jardueraren ondorioz sortzen diren gastu arruntak eta ezohiko gastuei aurre egiteko ere erabiliko dute dirua.

### Mendaroko Udala sare sozialetan dago

Mendaroko Udalak profilak sortu ditu Facebook, Instagram eta Twitter sare sozialetan, 'Mendaroko Udala' izenarekin. Herritarrekin hitz egitearen eta garrantasunaren aldeko apustua dela esan du Iñaki Arregi alkateak. Hauek izango dira helbideak:

- **Facebook:** orrialde ofiziala: Mendaroko Udala. Link: <https://www.facebook.com/MendarokoUdala-113264537077244/>
- **Twitter:** @MendarokoUdala. Link: [https://twitter.com/mendaroko\\_udala](https://twitter.com/mendaroko_udala)
- **Instagram:** @MendarokoUdala. Link: <https://www.instagram.com/mendarokoudala/>

### Sanlon izena emateko epea, zabalik

Sanlok jakinarazi du 2020/2021 denboraldirako izenematea zabalik dagoela. Inskripzioa, iaz bezala, on-line egin beharko da. Sanloren webgunean ([www.sanlo.net](http://www.sanlo.net)) dagoen inskripzio fitxa bete beharko da izena emateko. Arazorik izanez gero, [elgoibarkosanlo@gmail.com](mailto:elgoibarkosanlo@gmail.com) helbidera idatzi daiteke. Bestalde, Sanlok jakinarazi du 30. urteurreneko ospakizunak atzeratu egin dituztela. Denboraldi amaieran egin ohi duten Sanlo Festan zuten urteurrena ospatzeko asmoa, baina koronabirusaren ondorioz, festa hori bertan behera utzi behar izan dute momentuz.

### App bidez eman behar da izena Futbol Eskolan

2010, 2011 eta 2012. urteetan jaiotako neska-mutilek dagoeneko badute aukera C.D. Elgoibarren Futbol Eskolan izena emateko. Interesatuek C.D. Elgoibarrek duen APP aplikazioa erabili behar dute izena emateko. Informazio gehiago behar izanez gero, 943 741 949 da bulegoko telefono zenbakia, eta [cdekirolarloo@gmail.com](mailto:cdekirolarloo@gmail.com) helbide elektronikoa. Entrenamenduak eguaztinetan izaten dira: 2010. urtean jaiotako mutilenak 18:15etik 19:30era; 2011 eta 2012 urteetan jaiotako mutilenak 17:00etatik 18:15era, eta neskenak 18:15etik 19:30era.

### Mufomi museoak webgunea estreinatuta du

26 urte bete ditu Mufomi fosil eta mineralen museoak, eta Internetarako jauzia eman dute: [mufomi.org](http://mufomi.org). Bisita birtualak egiteko eta hitzordua hartzeko aukera eskaintzen du webguneak, besteak beste. 3.600 pieza baino gehiago ditu museoak, eta ondare hori herritarrei gerturatzeko da helburuetako bat.

## Ekainaren 21ean jokatuko dituzte Elgoibarren emakumezkoen pilota txapelketako finalerdiak, publikorik gabe

**M**artxoaren 14an jokatu behar zituzten Elgoibarren Laboral Kutxa Emakume Master Cup binakako txapelketaren finalerdiak, baina bertan behera laga behar izan zuten koronabirus pandemiagatik, eta hala, Euskal Herriko emakume pilotari onenak lehian, bertatik bertara, ikusteko aukera zapuztu zen. Ekainaren 21ean (domeka), 12:00etan jokatuko dituzte Elgoibarko finalerdiak Ikastolako frontoian, baina ikuslerik gabe.

Leire Etxaniz azken hiru urteotako txapeladuna zen finalerdietako bat jokatuzeko sailkatuetako bat, baina txapelketan parte hartzeari uko egin dio. Osasun larrialdia eta horrek ekarri dituen entrenamendu falta kontuan hartuta, "arinegi" dela dio Etxanizek lehiara itzultzeko. Etxaniz "familian hurretik bitzitzen" ari da COVID-19aren eragina, eta oraindik, etxeko batzuk berrogeialdian dituela adierazi du. Emakume Pilotarien Elkarteak (EPE) pilotaria defendatu du ohar batean. Etxaniz, batez ere Master Cup-ari dagokionez, txapeladun handia dela azpimarratu dute. "Jokatutako txapelketa gehienak berak irabazi ditu: binakako hiru txapelak eta banakako bi txapel (jokatutako hirutik). Ezbairik gabe, txapelaren neurria eginda dago Etxaniz". Hala ere, pandemiak ekarri duen egoerarekin eta bere buruarekin koherente jokatu duela esan dute: "Ez du laugarren txapela lortzeko aukerak itsutu. Bere lehenetsunak beste batzuk dira, eta koherentziaz jokatzea lehenetsi du". Emakume Pilotarien Elkarteak adierazi du ez dagoela ados Master Cup txapelketak hartutako erabakiekin, pilotarien behar eta nahiei begiratu beharrean bere probetxu eta interes propioak lehenesten ari delako. Beraz, honako hauek izango dira bi finalerdietako norgehiagokak: Iera Agirre-Maite Ruiz de Larramendi eta Irantzu Etxebeste-Ane Urkizu; eta Ainhoa Ruiz de Infante-Amaia Jaka eta Nagore eta Leire Galeano.

Finalerdietako irabazleek finala jokatuko dute astebete geroago, Irungo Uranzu frontoian, 17:00etan. Egun horretan jokatuko da ere pilota mistoko finala.



## Ekaineko astelehenetan bideo emanaldiak emango ditu Sinuösek Internet bidez

Sinuöse taldeko kideak martxan dira berriro, baina zuzeneko kontzertuak antolatzeko aukerarik ez dagoenez, Internet bidez zabalduko dituzte musika saioak. Joan zen astelehenean eman zuten lehenengo saioa, eta iragarri dute ekaineko astelehen guztietarako prestatu dituztela emanaldiak. Artista batzuei zuzeneko bideoak grabatzeko eskatu diete, "askatasun osoz eta formatu aldetik mugarik gabe", eta jaso dituzten lanak *Alarma Sessions* izenburupean zabalduko dituzte Sinuösek Facebooken daukan orrialdean. Lehenengo Cabezafuego izan zen, eta bideoa ikusgai duzue lotura honetan: <https://youtu.be/Xz7SshLRE3k>

## Txistularien diana izan zen Trinitate Jaietan kaleko ekitaldi bakarra

Trinitate jai birtualak antolatu zituen Elgoibarko Udalak joan zen astebururako, eta egitaraua ia bere osotasunean Internetera mugatu zuten. Udal Txistulari bandaren diana izan zen kaleko ekitaldi bakarra. Domeka goizean batu ziren txistulariak Kalegoen plazan. Han bertan jo zuten eguneko lehenengo pieza denek elkarrekin, eta ondoren, lau laguneko hiru taldetan banatuta zeharkatu zituzten herriko kale eta auzoak. Normalean bisitatzen ez dituzten auzoetara ere iritsi ziren txistu-hotsak, eta herritarrek "pozik" hartu zituzten. Domeka goizerako umeei dei egin zieten norberak bere etxeko balkoian danborra jotzeko, baina ez ziren asko izan dei horri erantzun ziotenak. Zapatu ganean, bestalde, nagusien danborradako ki-deek su artifizialak bota zituzten danborrada hastekoa zen ordu berean.





## Kanporatu dute Jurdan Ezenarro 'El Conquistador del Caribe' saiotik

Finalera ailegatzeko gutxi falta zela kanporatu dute Jurdan Ezenarro *El Conquistador del Caribe* telebista saiotik. 21. ataleko norgehiagokan kanporatu zuten astelehenean. "Iritsi da Conquiseko nire abenturaren azkena. Gustatuko litzaidake gehiago jarraitu izana, baina ez da posible izan. Eskerrik asko batesa eman didazuen guztioi. Nik estimutan ditudanak edo neu estimatzen nauzuenok zarete benetan balio duzuenak. Gainontzekoen goraiipamen edo kritikak bigarren mailan gelditzen dira", idatzi zuen Ezenarro sare sozialetan lehiaketatik kanporatu berritan. Une bakoitzean dena eman izanagatik, umiltasunagatik eta taldekide nahiz areioei agertutako errespetuagatik nabarmendu izana espero duela gaineratu du. Era berean, lehiaketak gauza asko ikasteko balio izan diola aitortu du.



## Kultur aretoak erabiltzeko arauak jarri dituzte Elgoibarko eta Mendaroko Udalek

Elgoibarko eta Mendaroko Udalek hainbat arau ezarri dituzte kultur aretoen erabilerrarako. Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan eta sotoan, esaterako, gehienez 10 lagun biltzeko aukera dago eta egunean bilera bakarra egin ahal izango da. Eskuak ondo garbitu beharko dituzte erabiltzaileek, maskara jantzi beharko dute, eta bi metroko distantzia gorde beharko dute elkarren artean. Debekatuta dago altzariak lekuz mugitzea. Udal Liburutegiari dagokionez, mailegu eta itzulketa zerbitzua bakarrik dago martxan. Liburuak Aita Agirreko sarreran itzuli behar dira, eta liburuak hartzeko liburutegira joan behar da, baina banaka. Ezinbestekoa da eskuak garbitzea, maskara jantzea eta bi metroko distantzia gordetzea. 9:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:30era dago zabalik.

Mendaron, bestalde, Azpilgoetako Kultur Etxea erabiltzeko moduan dago, baina mugekin. Goiko aretoan gehienez 16 lagun sartu daitezke, eta behekoan, 12. Sartu aurretik eskuak garbitu behar dira, eta barruan bi metroko tarreak gorde. Erabili ostean aretoak garbitu eta desinfektatuko dituzte. San Agustin kulturgunean egingo diren ekintzetan, berriz, gehienez, 80 ikusle hartuko dituzte, eta 14 urtez azpikoak ezingo dira bakarrik sartu. Eserlekutik eserlekura tartea laga beharko da, bi metroko distantzia zaintzeko. Mendaroko liburutegia ere zabalik dago mailegu zerbitzurako, baina ordua eskatu behar da aurrez, 943 033 291 telefonoan. Liburuak liburuzainak bakarrik ukituko ditu, eta liburutegira sartzeko, maskara jantzi beharko da. 14 urtez beherakoak eta mendekoak direnak ezin dira bakarrik joan, eta doazen guztiek eskuak garbitu beharko dituzte sarreran.

## Bidezko Merkataritzaren denda zabalduko dute

Bidezko Merkataritzaren denda zabalduko dute ostegunero, 9:00etatik 12:00etara, Merkatu Plazan duten postuan.

## C.D. Elgoibarren urteko batzarra ekainaren 26an

C.D. Elgoibarrek ekainaren 26an egingo du bazkideen urteko batzarra. Olaizaga kiroldegiko kantxan izango da, 19:00etan. Gehienez 60 lagun batu ahal dira, bakoitzak bere maskara eraman beharko du eta elkarren arteko distantzia zaindu beharko dute. Egungo zuzendaritzak jakinarazi du beste urtebetez hartuko duela klubaren ardurua, eta bazkide guztiei egin diete batzarrera joateko deia. Gai hauek landuko dituzte: 2018-2019 denboraldiko aktaren onespena, Covid19, urteko kirol balantzea eta urteko balantze ekonomikoa.

## San Lazaroko langileei eskerrak emateko elkarretaratzea

Elgoibarko pentsiodunek elkarretaratzea egingo dute astelehenean Maalan, San Lazaro egoitzako langileei eskerrak emateko. Esker ona adieraziko diete azken hilabeteetan egoiliarak zaintzeko erakutsi duten profesionaltasunagatik eta gizatasunagatik. Era berean, adinekoek eta pentsiodunek bizi duten egoera salatzekeo baliatuko dute elkarretaratzea. Emakume pentsiodunen egoera gogora ekarri nahi dute, haietako asko pentsio mizeriazkoekin bizitzera behartuta daudelako. 19:00etan izango da ekitaldia.

## Urruzunoko jaiak, bertan behera

San Antonio eguna ekainaren 13an izaten da, eta auzoko jaiak ospatzen dituzte Urruzuno bailarako auzotarrek, baina Elgoibarko Udaletik jakinarazi diete aurten ezingo dituztela auzoko jaiak ospatu, segurtasun neurriak bermatu ezin daitezkeelako.

## Maskarak saltzeko makina ipini dute Mendaron, udaletxeko sarreran

Mendaroko Udalak maskarak saltzeko makina ipini du udaletxeko sarreran, eta Udalean bertan eskuratu ahal izango den txartel baten bitartez edota txartelik gabe ere eskuratu ahal izango dira makinako maskarak. Lau maskaraz osatutako sorta erosi ahal izango dira. Txartela erabilia, herritarrek egunean lau maskarez osatutako sorta eskuratzeko aukera izango dute. Sorta bakoitzak bi euro balioko ditu txartelarekin erostean: 0,50 euro maskarako. Udalak txartel bat banatuko du familia unitate bakoitzeko. Maskara gehiago nahi dituztenek, txartelik gabe ere erosi ditzakete, lau unitateko maskara sorta hiru euroan, hain justu ere. Astelehenetik ostiralera erabili daiteke zerbitzua, honako ordutegian: 08:00-13:00 / 17:30-20:00. vending-puntuak gel hidroalkoholikoa izango du, erabiltzaileak eskuak desinfektatu ahal izateko maskarak atera aurretik eta ondoren, eta, horrela, kutsatzeak saihesteko.



## Zabalik da 'Bizilabe' egitasmoaren bigarren ekitaldian izena emateko epea

Gazteen artean zientziarekiko eta teknologiarekiko interesa eta motibazioa, ekintzailetasuna eta sormena bultzatzeko *Bizilabe* programaren bigarren edizioa antolatu du Elgoibarko Udalak, eta dagoeneko, zabalik dago izena emateko epea. 2020-2021 ikasturteari begira, 2007tik 2010era bitartean jasotako gazteek tailerretan parte hartu eta proiektuak egin ahal izango dituzte Debarrean, STEAM (Science, Technology, Engineering, Art and Mathematics) arloetan, ikerkuntzan diharduten emakumeen laguntzarekin. Bi tailer antolatu dituzte: *Zientzia eta teknologiako Bizilabe tailerra* abuztuaren 31tik irailaren 4ra emago dute, eta bost saio izango ditu. Informazio gehiago <https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/elgoibar/tailerrak/bizilabe-tailerra> webgunean. Bigarrenak, *Izan ikertzaile eta asmatzaile*, ikasturte oso bateko iraupena izango du. Urriaren 2tik 2021eko maiatzaren 28ra izango da, bariku arratsaldeetan, eskolaz kanpoko ordutegian. Informazio gehiago helbide honetan: <https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/elgoibar/tailerrak/izan-asmataile-eta-ekintzaile-ikasturteko-bizilabe-programa> Tailerrak Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa egingo dira, eta bi taldetan banatuta arituko dira: 2009-2010ean jaiok (10-12 urte) eta 2007-2008an jaiok (13-14 urte).

## Mendaroko frontoia zabaldu dute

Astelehenean zabaldu zuten Mendaroko frontoia herriko gazteek, Udalaren baimenarekin. Udalak baldintza bakarra jarri du frontoia erabiltzeko: 14 urtez azpikoek heldu batekin joan beharko dutela frontoira. Horrez gain, bi metroko tartea gorde beharko dute erabiltzaileek euren artean. Padel



pista, berriz, zabalik dago joan zen astetik. Padel pista ere, 14 urtez beherakoek ezingo dute bakarrik joan. Sartu aurretik, berriz, gel hidroalkoholikoz garbitu beharko dituzte erabiltzaileek eskuak, eta pista barruan, bi metroko tartea gorde beharko dute. Aholku bat ere eman dute: lurrera erortzen diren pilotak raketarekin jasotzeko eta ostikoz pasatzeko bata besteari.

## Umeentzako argazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Ludotekak

Ludotekak HH5 eta LH6 bitarteko umeentzako Argazki Lehiaketa antolatu du. Udaberriko loreak izango da gaia, eta udalerrri barruan ateratako lore bati egindako argazkiak onartuko dituzte. Argazki bakarra aurkeztu ahal izango da pertsonako. Ekainaren 19an amaituko da parte hartzeko epea. Jasotako lanekin erakusketa librea egingo dute, herriko hainbat gunetan, besteak beste, Aita Agirre eta Kultur Etxean, eta ikusleek botoa emateko aukera izango dute, ekainaren 22tik 26ra bitartean. Argazkiaren originaltasuna, lorearen berezitasunak eta kolorea izango dira kontuan hartuko diren irizpideak. Lanak [ludotekaelgoibar@gmail.com](mailto:ludotekaelgoibar@gmail.com) emailera edo whatsapp bitartez bidali ahal izango dira 656 740 793 zenbakira. Sari nagusia bat-batean argazkiak egiteko kamera bat izango da, eta ikuslearen saria, berriz, hariarik gabeko entzungailu bat.



Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**P**lastikozko eskularruak lurrera botatzen dituz jendeak: "Ez dago eskubiderik. Koronabirusaz babes-teko plastikozko eskularruak ematen dituzte supermerkatuetan, eta han bertan jartzen dituzte kaxa batzuk, irteterakoan erabil-tako eskularruak bertara botatzeko. Hala ere, jendeak kaleko zakarrontzira botatzen ditu, edo hobe esanda, zakarrontzi-ingurura. Koronabirusak eragindako zaborra asko ugaritu da, eta hainbat lekutan maskarak ere ikusi izan ditut lurreen. Me-sedez, ez gaitezen horren zikinak izan eta zaindu dezagun ingurunea".



**T**xakur kaka utzi digute gure lantokiaren kanpoaldeko lorontzian: "Oraindik sinistu ezinda nago! Lanera etorri eta lantoki kanpoaldean apaingarri gisa ditugun lorontzietako batean txakur kaka utzi digute. Sekulako erres-petu falta iruditzen zait. Nik neuk ere txakurra daukat, eta ez zait inoiz horrelakorik burutik pasatu. Elkarbizitzarako arauak errespetatu behar dira, eta ezin du bakoitzak nahi duena egin. Nazkagarria da horrelakoekin topo egin beharra, eta une honetan daukadan haserrearekin, txakur jabe horri aurpegira bo-tako nioke hemen utzi digun oparia".



**E**stazio kaleko estolda batekin estropozu egin nuen: "Estazio kaleko 9 zenbakiaren inguruan estolda bat okertuta eta lurretik jasota dago. Koska bat dauka, ez da han-dia, baina joan zen astean estropozu egin nuen, eta erori egin nintzen. Ezer larriagorik gertatu aurretik, konpondu egin behar dela iruditzen zait".



**T**xalo bat txistulariei, herrigunean ez ezik, au-zoetan ere ibili zirelako domekan: "Trinitate jairik gabe geratu gara aurten, eta pena izan da. Joan zen astebu-rua jai-giroan ospatu izango genukeen koronabirusak bazte-rrak nahastu izan ez balitu, baina tamalez, asteburu soil bat izan zen. Hori bai, txistulariak kalejiran irten ziren, eta norma-lean bisitatzan ez dituzten auzoetara ere joan ziren oraingoan. Sekulako poza hartu genuen San Pedro auzoaren amaierako etxeetako bizilagunok txistu hotsa entzun genuenean. Badakigu Urazandi, San Roke eta Sigman ere ibili zirela, eta horregatik, txalo bero bat eman nahi diegu. Normalean auzoetako bizi-lagunak ahaztuak sentitzen gara, eta oraingoan, gurekin ere gogoratu zaretelako, eskerrik asko.

# Martxan da Elgoibarko euskalgintza eta kulturgintza elkarlanean biziberritzeko prozesua

**Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak herriko euskalgintzako eta kulturgintzako ekosistemak osatzen dituzten eragileekin elkarlanean abiarazi nahi dute Elgoibarko euskalgintza eta kulturgintza biziberritzeko prozesua. Iritzi-bilketa kualitatibo baten ostean, elgoibartarrei zuzendutakoak izango diren jardunaldiak antolatzen ari dira urriaren 3rako. Euskararen erabileran eta euskal kulturzaletasunean eragingo duten erabaki estrategikoak hartzeko mugarrria izatea nahi dute.**

**E**uskara ala Ezkara jardunaldiek hamaika urtetan bildutako edukia ahalik eta elgoibartar gehienenganaino nola hedatu hausnartzen aritu ziren iaz Udala, Elgoibarko Izarra eta Dijitalidadea, euskara eta bere kultura langai eta helburu dituen enpresa. Bi ardatz nagusi identifikatu zituzten: Batetik, euskaldun izatearen kontzientzia azaleratu nahi izan dute eza-gutza eta pentsamendua uztartzen zituzten ekintzen bitartez, eta, bestetik, Euskal Herri osoko kulturgintzaren hainbat lagin ekarri dituzte Elgoibarrera. Bi ardatz horietan antolatutako hamaika urteko ekinak helburu bateratua zuen: euskaltzale eta kulturzaletak sortzea. Era berean, hausnarketa haietatik bi ondorio erauzi zituzten: Lehena, hamaika urtetan antolatutako jardunaldien edukiak [www.euskaraalaezkara.eus](http://www.euskaraalaezkara.eus) atarian jasota ere, Interneten egote hutsak ez duela bermatzen elgoibartarrek erabili

eta bere egingo dituztenik. Bigarrena, eduki horiek sozializatuta ere, beste aurrerapauso batzuk eman behar direla halabeharrez. Orduan, Elgoibarko euskalgintzak eta kulturgintzak urrats kualitatibo bat emateko aukera dutela konturatu ziren. Egitasmo berri honen sustatzaileen esanetan: *“Euskara ez da normalizatu kulturgintza osasuntsu ez badago eta kulturgintza ez da osasuntsu egongo euskararen erabilerak gora egiten ez badu. Euskal Herri osoan legez, euskaltzaletasunak ez du aurrera egingo Elgoibarren euskara herriko kulturgintzaren ekosistema osatzen duten eragileekin artikulatu eta sinkronizatzen ez bada. Saihestu ezinezko galdera bati erantzun behar diogu guztion artean: zer da estrategikoa Elgoibarko euskalgintza eta kulturgintzarentzat?”*. Iritzi-bilketa kualitatibo batekin hasi dute herri-proiektu bihurtu nahi luketen egitasmoa.



ANE ODRIA

*"Egiten duguna zergatik eta zertarako egiten dugun jakin behar dugu"*

**E**lgoibarko euskalgintzaren eta kulturgintzaren egoera inporta zaidalako, batik bat, hartuko dut parte lan-prozesu honetan. Uste dut bi eremu hauetan gauzak egitera ohituta gaudela, eta ez horrenbeste egindakoaren gainean hausnartzera. Egitea ondo dago, behar-beharrezkoa da, baina iruditzen zait egitera goazen hori zergatik eta zertarako egin nahi dugun argi izatea ere garrantzitsua dela. Eta horretarako ezinbestekoa da, lan honetan egingo den moduan, zein puntutan gauden eztabaidatzea, egoeraren indargune eta ahulguneak mahaigaineratzea. Horixe da, azken finean, lan prozesu honetan egingo duguna. Alde horretatik pentsatu nahi dut elkarrizketa hauetatik atera den ikuspegi orokorrak gogoetarako ez zik aurrera begirako jarduna eraginkorragoa izaten lagunduko duela.



PAULA HERAS

*"Egur Arte tailerrari buruz nire buruan ditudan ideiak antolatzeko ere balio izan dit"*

**P**restatzen diharduten lan-prozesua azaldu zidatenean animatu egin nintzen. Iruditu zitzaidan diagnosis-lanak zeozer hobetzeko asmotan egiten direla, egoerak hobetzeko helburuarekin, eta eskatzen zidatena egiteko inolako arazorik ez nuenez, baietz erantzun nien. Ondo sentitu naiz galderei erantzuten nahiz eta ez den erraza izan. Denbora dexente behar izan dut azkenean, baina gustura geratuko naiz nik esandakoak lagungarri baizaizkie. Gainera, Egur Arte tailerrari buruz nire buruan ditudan ideiak antolatzeko ere balio izan dit: iragana, gaur eguna eta etortzeko dagoena. Egurrek berak, elkarre bezala eta baita ere herriko beste elkarteekin daukan edo eduki nahiko lukeen erlazioaz pentsatzeko. Hausnarketa hau orain egitea aberasgarria izan da niretzat.



GORKA ARRESE

## “Euskararen eta kulturaren praktikan urrats berrizaleak behar dira”

Gorka Arresek (Zarautz, 1965) izan du 40 elgoibartarrak elkarrizketatzeko ardura. Gorka Susako editorea izan da 25 urtez eta Dijitalidadea enpresako kide moduan dihardu lanean.

### ◆ Zein izan da orain arteko lana?

Nor gara? Galdera honi erantzun berriak emateko premia dago herri guztietan, 21. mendeko lehen 20 urteak igaro ditugunean. Mende batetik besterako saltoan, kultura eta hizkuntza, komunikazioa eta teknologia, eta bizitzeko moduak aldaketa prozesu bizietan murgildu dira. Elgoibarko kultura eta euskara mundua zertan ari diren deskribatzeko ahalegina egingo dugu, hasteko: zertan dihardute herriko musikariek, kantariek, dantzariak, artistek, idazleak, hizkuntzalariak, irakasleak, hezitzaileak, kultura zaleak, euskaltzaleak. Galdera mordoa egin diet, eta uztailean denen erantzunak elkarren artean trukatzeko garaia izango da, ezagutu ditzaten batzuek eta besteek zein diren etorkizuneko asmoak, helburuak eta desirak. Eta gero, urrian, *Euskara ala ezkara* jardunaldietan solas egitera eseriko dira.

### ◆ Eta zure ustez, zein emaitza ekar dezake?

Emaitza izango da: datu ugari eta iritzi ezberdin asko. Horrek eramango gaitu elkarrekin solas egitera, elkar ezagutzera eta ulertzerako, oinarritzko asmo eta helburu batzuetan ados jartzera, ahultasunak zein diren kontzientzia hartzerako, trukean eta koordinazioan lan egiteko premiaz jabetzera. Azken batean, bi galdera sortuko dira: 1) zer egin nahi dugu aurrerantzean?, eta 2) nola antolatuko gara?

Kultura da euskararen lurralde aberasgarriena eta atseginena. Hitzaren ederra, doinuaren ederra, gorputzaren ederra, artearen ederra... gure herriaren presentean eta etorkizunean proiektatu behar ditugu. Nik konfiantza handia daukat Elgoibarko teknologiaren munduak ere honetan guztian parte hartzeko gogoia izango duela. Bestela, zertarako ari dira egunero jo eta su lanean?

### ◆ Elgoibarrek dituen ezaugarriengatik proposatu zenieten lan hau Udalari eta Elgoibarko Izarrari? Edo beste herri batzuetan ere egingarria dela deritzozu?

Elgoibar tradizionala eta modernoa da aldi berean; zubi asko ditu herriak, eta alde batera edo bestera egin izan du garai sozial eta historiko ezberdinetan. Gaur egun teknologia aurreratuaren garaia bizi du, produkzioan eta erabileran; eta giro honetan, irudipena daukat euskararen eta kulturaren praktikan ere urrats berrizaleak eta berritzaileak egiteko gogoia eta premia daukela. Industria eta teknologia arloetan Elgoibarrek erakutsi dituen grina eta ausardia izan behar litzuke kulturaren eta hizkuntzaren ere. Beste herri batzuetan abiatuko dira honen antzeko prozesuak, noski; bakoitzak bere erara egingo du. Euskal Herriko leku askotan dago progreso irrika.

## ELKARRIZKETATUAK



- Ainhitze Beristain
- Ainhoa Andonegi
- Alba Esnal
- Amaia Larrañaga
- Ander Mujika
- Andres Alberdi
- Ane Odria
- Bea Ansola
- Blanca Salegi
- Edurne Bilbao
- Encarni Migales
- German Meabeasterretxea
- Gorka Mujika
- Iban Urizar
- Imanol Garaizabal
- Imanol Larrañaga
- Iñaki Odriozola
- Iñaki Raigoso
- Izaskun eta Marijo Estibaritz
- Jabier Larrañaga
- Jasone Osoro
- Jesus Mari Makazaga
- Jokin Martinez
- Jon Barandiaran
- Julen Ansola
- Kristina Zuatzubizkar
- Lutxi Arregi
- Maialen Astigarraga
- Maria Cid
- Mikel Etxaniz
- Mikel Olaizola
- Miren Arozena
- Naiara Martin
- Paula Heras
- Raket Agirre
- Susana Gurrutxaga



ANDREA ARRIOLA eta MAIALEN GURRUTXAGA

## “Denona eta denontzat izango den proiektua behar dugu, Elgoibar euskaldunagoa eta kulturzaleagoa izateko”

Udalak, eta bereziki, Euskara eta Kultura sailok egitasmo honen aldeko apustua egin dugu herri-proiektu baten beharra ikusi dugulako, eta gure helburuetan aurrera egin nahi badugu, euskaltzaleak eta kulturzaleak behar ditugulako. Euskara Sailean urteak daramatzagu euskararen erabilera sustatzeko ekintzak eta egitasmoak antolatzen, baina ahozko erabilera aurrera egiteko zailtasunak ditugu, eta bidea errazagoa izango zaigu Kulturaren makuluarekin. Euskarazko kulturzaletasuna sustatzea ezinbestekoa ikusten dugu euskaltzaletasuna eta euskararen erabilera areagotzeko. Herriko elkarte, erakunde edo agente bakoitzak berean jarraituko du, orain arte moduan, baina denona eta denontzat izango den proiektua behar dugu, Elgoibar euskaldunagoa eta kulturzaleagoa izateko. Egitasmo honetan parte hartuko dutenei esker, lortuko dugu hau egia bihurtzea.



## HAURRAK

# GORKA MADRAZO

Atxutxiamaika aisialdi  
taldeko arduraduna



ATXUTXIAMAIIKA

Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuenetik neurri murriztaileenak izan dituzte haurrek, eta oraindik ere, itxita jarraitzen dute propio haientzat sortutako espazioek, eta geld, haientzako ekintzek. Egoeraren larriaz jabetuta, **Gora haurtzaroa!** manifestua kaleratu du Oinherri elkarteak. Oinherri urte batzuk badaramatza ohartaraziz haurtzaroren kultura falta dela eta helduok zailtasunak dauzkagula umek herritar moduan ikusteko. Elgoibarko Izarra da Oinherri elkarte osatzen duten eragileetako bat eta Gorka Madrazo (Durango, 1987) da Elgoibarko Izarraren Aisialdia Saileko arduraduna. Haurrei hitza ematearen beharraz ohartarazi du Madrazok.

- AINARA ARGOITIA -



Gorka Madrazo, Nerea Eizagirre eta Ander Osoro Atxutxiamaikako koordinatzaileak.

### ◆ Zer iruditu zaizkizu Gobernuak haurren konfinamenduaren inguruan ezarritako neurriak?

Ez zait justua iruditu ume eta nerabeei eman zaien tratamendua. Neurriak zehaztu dituztenean ez dituzte umeen eta nerabeen eskubideak aintzat hartu, ezta haien osasun integralerako beharrezko izan daitezkeenak ere. Zer egin zuen Espainiako Gobernuak umekin? Sartu zituen etxe barruan, esfera publikotik apartatu zituen eta ez zituen aipatu konfinamenduko seigarren astera arte. Kalean burrunba sortzen hasi zenean hasi ziren umek aipatzen agintari politikoak, herritarrak euren amorrua agertzen hasi zirenean. Orduan hasi ziren haurrak zoriontzen, hein batean euren buruak zuritzeko. Iruditzen zait haur eta nerabeek ez direla inongo momentuan kontuan hartu, eta gainera, agintariak inprobisazio

handiz jokatu dutela. Hori nabarmena izan zen umeei kalera irteteko baimena eman zietenean. Eguerdi batean, 14 urteko beherako haurrek helduei laguntzeko aukera izango zutela zabaldu zuen Espainiako Gobernuak; hau da, erosketak egiteko, edota bankura edo farmaziara joateko irten ahal izango zirela. Jaso zizuten kritika guztiengatik, baina, ordu gutxiaren buruan, iluntze berean, atzera egin zuen Gobernuak eta haurrei paseoak emateko aukera bermatuko ziela zehaztu zuen Salvador Illa Osasun ministroak. Ordurako, jakina, txakurrei ere eskubide handiagoa aitortua zieten, txakurra paseatzera irteteko baimena emana zitzaielako txakur-jabeei.

◆ **Espainiako estatuan beste inon baino zorrotzagoak izan dira konfinamendua arintzeko orduan umeei ezarri zaizkien neurriak. Zergatik izan dela uste duzu?**

Ez direlako ume eta nerabeek herritartzat hartzen. Etorkizuneko herritartzat hartzen dituzte agintariak eta herritarroi dagozkigun eskubide eta betebeharrak ukatzen zaizkie. Haurtzaroren kultura falta dugu. Konfiantzarik ez dute haur eta nerabeengan. Kolektibo kontrolaezina dira gure agintarientzat, baina ez dira hala. Oinherri gabiltzanok garbi daukagu umekin berba egiten bada, azaltzen bazaie egoera zein den, eta adosten badugu beraiekin zer egin behar dugun kalean lagun bat ikustean, umek arazo barik ulertzen dutela eta ardurak hartzen dituztela. Tristeia izan da benetan umeei zein jaramon gutxi egin zaien krisi honen kudeaketan, baina ikusgarria izan da zein modu erdugarrian erantzun duten haiek. Zoriontzekoa da, benetan, egoera zail honetan haur eta nerabeek erakutsi duten jarrera, bai eta haien gurasoena ere. Eginahalak



egin dituztelako haur eta gaztetxoek beharrei ahal zuten ondoen erantzuteko, eskura zituzten baliabideekin. Hori ere gertatu delako. Etxe guztietan ez dituzte baliabide berak izan krisi honi erantzuteko eta lehen ere egoera zailenean zeudenek pasatu dute okerrera.

#### ◆ Zer da haurtzaroren kultura?

Haurtzaroren kulturak haurra edo nerabea jartzen du erdigunean, eta gartzeko eta ikasteko, berriak sortzeko tresnatzat jotzen ditu jolasa eta sormena. Haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena aitorazean datza haurtzaroren kultura. Gaur egungo pentsakera aldatzea eskatzen du: haurrentzat sortu beharrean, haurrekin sortzea eskatzen du haurtzaroren kulturak. Haurren presentzia parkeetara mugatu dugu kalean, baina parke horiek diseinatzeko orduan inork galdetu al die zelako parkeak



*“Tristeia izan da umeei zein jaramon gutxi egin zaien, baina ikusgarria izan da zein modu eredugarrian erantzun duten haiek”*

nahiko lituzketen? Helduok diseinatu ditugu parke horiek, gure ikuspuntutik eta geure beldurretatik, eta geuri komeni zaigun lekuetan eraiki ditugu gainera. Haur bati galdetzen badiogu parke batek zeintzuk ezaugarri izan beharko lituzkeen, zurrerik aipatuko du nahiko lukeela harriak makilak, hostoak, lokatza... egotea. Naturarekin lotura handiagoa duten parkeak nahi dituzte umeei, baina zer eman diegu? Plastikoa. Plastikozko parkeak eraiki ditugu, akoltzatuak, aukiz inguratuak gurasoek non jarri izan dezaten, eta inguru

hesitu dugu, segurtasunaren izenean.

◆ **Etxean itxita egon garenean ere, helduok adiskidetasun-harremanak mantentzeko aukera izan dugu. Ume askok ez. Zertan eta nola eragin die horrek?**

Haur eta nerabeei bizi izan duten egoera oso kezkarria da. Ez dute aukerarik izan harremantzeko, jolasteko, euren zaletasun askori eusteko, ez eta zaletasun berriak deskubritzeko ere. Eta etxe askotan euskaraz berba egiteko aukerarik ere ez dute izan. Guzti horrek eragin negatiboa izan du. Motibazioa galdu dute, apatiko egon dira, sormena galdu dute eta jolasarekiko interesa ere apaldu zaie. Kontzentrazioarako gaitasuna ere galdu dute hein batean, eta telebistaren edo bestelako pantailen aurrean egoteko desioa handitu zaie. Egoera animikoan eragin die, antsietatea eta atzera egitea eragin die nerabeei. Lagun-gosea dute.



## HAURRAK ETA NERABEAK

Lagunekin egoteko beharra dute, besteak beste, emozioak askatzeko eta bizi dutena partekatzeko beharra dutelako. Hel- duok ere badugu behar hori, baina guk aukera handiagoa izan dugu horretarako.

♦ **Umeak etxean izan diren garaian, guraso asko lanean jardun dira, telela- nean asko.**

Bai, ume asko etxean izan dituzte gu- rasoak, gertu, baina haurren beharrei erantzun ezinda ibili dira haiek sarri. Bizi- tza produktiboa eta zaintza batera man- tentzeko ezina nabarmena izan da. Egia da haurren beharrei erantzuteko proposa- menak eta baliabideak sortzeko ahalegin handia egin dutela eragile askok, baina neke halako bat igarri diegu umeei eta fa- miliei, eta era berean, esan behar da, ba- liabide jakin batzuk izan dituzten familiek bakarrik baliatu ahal izan dituztela propo- samen horietako asko. Zailtasunak zituz- tenak atzean gelditu dira orain ere. Nekea denok igarri dugu. Lehenengo bi asteetan nahikoa ondo moldatu ginen denok egoera berrira, baina egunak gehitu ahala, neke-sentsazioa nabarmena izan da. Bideo-deiak eta halakoekin ere kokoteraino bukatu dugu guztiok. Gain hartu digu egoerak.

♦ **Eskolak ere itxita daude martxoaren 12az geroztik. Eskola zer da umeen ga- rapenerako?**

Ikasteko eta irakasteko guneak dira es- kolak, baina,aldi berean, umeek umeek harremantzeko duten espazio garrantzitsuena dira. Elkarrekin eta elka- rrengandik ikasten dute umeek zailtasunei eta gatazka egoerei aurre egiten, eta ho- rretarako espazio hori barik laga ditugu. Era berean, ume askorentzat egunean otordu osasuntsu bat ziurtatzeko aukera ematen du eskolak. Horren inguruan ez da asko hitz egin, baina hori ere egon da eta familia askotan gorriak ikusi dituzte. Eskolaz ari gara, baina ez dugu ahaztu behar, gainera, eskolez gain, umeek ha- rremantzeko dituzten beste espazio gehie- nak ere, izan ludoteka, jolas parkeak... itxita dauzkagula. Denda, taberna eta

*“Baliatu beharko genuke krisi hau gogoeta egiteko eta aztertzeke zer nolako gizarte-eredua nahi dugun”*

gainerako zerbitzu gehienak zabalik daude eta erruz dabil jendea kalean, baina umeentzako diseinatu ditugun gu- neek itxita jarraitzen dute. Kontraesana handia da.

♦ **Adituek ohartarazi dute bakarrik jo- lastu beharrak edo elkarren artean bi metroko distantzia gorde beharrak era- gina izango duela haurrengan. Zertan eta nola eragingo die umeei?**

Urruntze soziala denontzako da go- gorra, baina umeen kasuan bereziki da zaila bi metroko distantzia hori gorde- tzea. Kontaktua behar dute umeek, emo- zioak agertzeko, adin berekoekin jolasteko, gauzak adierazteko... Horrei gehitu umeek halako normaltasun bat ikusten dutela kalean, baina aldiz, euren espazio ohikoak plastikoz inguratuta eta itxita ikusten dituztela. Kontraesan handia dago hor, eta umeek ikusten dute, jakina. Parkera sartzeko euro bat ordaindu be- harko balitz, ziurrenik parke guztiak za- balik egongo lirateke gaur, baina kontsumitzen ez dutenez, baztertuta di- tuzte. Test masiboak egitea litzateke onena, kutsatuak daudenak berrogeial- dian jarri eta gainerako guztiei jolaserako bidea emateko. Normaltasun berria dei- tzen diote honi, baina normaltasunetik gutxi du honek. Baliatu beharko genuke krisi hau gogoeta egiteko eta aztertzeke zer nolako gizarte-eredua nahi dugun, zer nolako herri-proiektua, hezkuntza-sis- tema, hizkuntza-politika... behar dugun eta zertzuk gauza lehenetsi behar ditugun desio dugun hori lortzeko. Krisiak arazo asko azaleratu ditu, baina arazoak hor ziren lehen ere. Bistaratu egin ditu.

♦ **Hizkuntza-politika aipatu duzu. Gure gaia da. Zer da ikusi duzuna?**

Koronabirusaren krisian euskara biga- rren mailako hizkuntza izan dela. Aginta- rien jendeurreko erabilera-eta nabarmena izan da.

♦ **Oinherri aipatu duzu. Elgoibarko Iza- rra ere sartuta dago hor. Zer da Oinhe- rri?**

Haurren hezkuntza eta aisia beste modu batean egin zitezkeela amesten zuten sei eragilek sortu zuten Oinherri, 2012an. Tarte honetan, teoria eta prak- tika uztartuz, herrigintzatik, benetako parte-hartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburua hartuta, hainbat urrats egin ditugu. Bide horretan, taldea handitzen eta aberasten joan da, eta orain, 15 bat eragilek osatzen dugu. Zazpi kontzeptutan oinarritzen da propo- satzen dugun aisia-eredua. Jolasa eta sor- mena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aldarrika- tzen dugu. Hori oinarri hartuta, haurrei be- netan parte hartzeko eta erabakitzeke ahalmena ematea eskatzen dugu, eta eurek eraikitako aisia hezitzailea eta eus- kaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen natu- rala eta ingurumen kulturala zainduz, ko- munitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

♦ **Familia asko egongo dira udako aisia eskaintzaren beharrean. Zer daukazue esateko?**

Ez dagoela erraza, mila marra gorri daudelako eta errespetu handia ematen duelako horrek denak, baina, bai, beha- rra begibistakoa da. Ardura handiz joko- tzea dagokigu denoi, baina bistan da eginahalak egingo ditugula familien beharrei erantzuteke eta indar eta gogo guztia jarriko dugula horretan. Zain-zain egon gara, baina ikusi dena da hirugarren fasera arte Jaurrlaritzak berak ere ez duela marko orokorrik ze- haztu. Nahikoa larri gabiltza denbo- raz, egia esan, baina zerbait egin ahal izango dugun itxaropena badugu guk geuk.



## MINTXETA

# GORKA GARAIZABAL

Kirol zinegotzia

Ekainaren 15ean zabalduko ditu Kirol Patronatuak Mintxetako aire libreko igerilekuak, baina koronabirusa dela-eta, ez dituzte orain arte ezagutzen genuen moduan irekiko: gehieneko edukiera mila lagunekoa izango da berdegunean, eta uretan, aldiz, 75 lagunekoa igerileku handian eta hamabostekoa, txikian. Horrez gain, berdegunea pibote batzuekin banatuta egongo da, eta gune horietako bakoitzean sartu beharko dira erabiltzaileak. Ezinbestekoa izango da, era berean, bi metroko distantzia mantentzea uneoro. Hauek eta beste hainbat neurri hartu dituzte Kirol Patronatuko arduradunek, osasuna bermatzeko. Araudi sakona argitaratu dute, eta Gorka Garaizabal kirol zinegotziak eman dizkigu araudi horren gaineko azalpenak. Era berean, gogorarazi dute udako abonoa ateratzeko aukera dagoela, [olaizagaharrera@hotmail.es](mailto:olaizagaharrera@hotmail.es) helbidean edo 943 744 415 eta 943 747 356 telefonoetan.

- AINHOA ANDONEGI -

### ◆ Kirol instalazioetarako eta igerilekuetarako araudi sakona osatu duzue. Zer hartu duzue kontuan?

Alarma egoeran gaudela izan dugu kontuan izan dugu eta Espainiako Gobernuak Osasun Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako osasun eta segurtasun neurriak ahalik eta ondoen betetzea izan da araudi honen helburua. Erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna ziurtatzea da gure helburua eta Covid 19a zabaltzea saihestea.

### ◆ Araudi horrek segurtasuna ematen dizue? Lasaitasunez irekiko duzue?

Adituek erabaki dute denontzako berria den egoera honetan nola jokatu behar dugun eta berria den edozein egoerak errespetua ematen digu. Zuhurtziaz jokatzeko egoera hau gainditzeko baliagarria izango zaigu. Gehiegi lasaitzen bagara, ez ditugu beharrezkoak jotzen diren neurriak beteko eta gogoratu behar dugu arriskua oraindik kalean dagoela.

### ◆ Adituek diote urak eta eguzkiak birusa ahultzen duela.

Uretan ez dago birus hori, baina urazpian ezin dugunez arnastu ur azalera irten beharra daukagu eta hor beti mantendu beharko da erabiltzaileen arteko bi metroko segurtasun distantzia. Eta hori ezinezkoa bada maskara erabili beharko da, batez ere joan etorrian.

### ◆ Izan al duzue momenturen batean igerilekuak ez zabaltzeko ideia buruan?

Alarma egoera honetan astero joan gara Gobernuen neurri berriak ezagutzen eta horren arabera joan gara erabakiak hartzen. Martxoan eta apirilean dena oso ilun ikusten genuen, baina maiatzean eta ekainean egoerak hobera egin





“Jendeari erantzukizunez jokatzeko eskatzen diogu”

du. Denon esku dago atzerapausorik ez ematea.

### ◆ Nor arduratuko da igerilekuetako araudi hori betetzeaz?

Kirol instalazioko langileak arduratuko dira araudia betetzen dela zaintzeaz, eta espero dugu erabiltzaileek ere arduratsu jokatzeko. Normalean baino langile gehiago izango dugu lanean: Mintxetako sarreran hasierako kontrola jarriko dugu, bertan egongo den langileak erabiltzaileei beharrezkoa duten informazioa emango die (maskara erabiltzeko eskatu, norabideak nola dauden seinalizatuak azaldu, segurtasun distantzia mantendu behar dela gogorarazi, e.a.) eta gune bakoitzera doan erabiltzaileak kontrolatuko ditu. Muskulazio gelan ere uneoro instalazioko pertsonala arduratuko da bertako erabileraz. Igerilekuko harreran ere bi pertsona egongo dira sarrera-irteerak eta edukiera kontrolatzen, erabiltzaileen egonaldia eta araudia betetzen dela ziurtatzeko. Garbitzaileak ere egun osoz ibiliko dira komunak garbitzen. Uneoro bi sorosle izango dira bi igerilekuak kontrolatzen.

◆ %30era mugatu duzue edukiera, hau da, mila lagun gehienez. Nahikoa izango da edukiera hori?



## MINTXETA

Ez daukagu ziurtasun osoa ez dakigulako jendeak nola erantzungo duen, eta agia, momenturen batean edukiera gainditzen bada, sarrera itxi egin beharko dugu. Baina beste urteetako esperientzia kontuan izanik, espero dugu gutxitan gainditzea edukiera hori.

♦ **Edukiera mugatua izango dela kontuan hartuta, pentsatu al duzue elgoibartarrei lehenatasuna ematea?**

Inguruko herrietako igerilekuak ere irekiko dituzte: Bergarakoa ekainaren 15ean, eta Eibarkoa, uztailaren 1ean, esaterako. Baina bai, egungo egoeran Mintxetako igerilekuetara sartzeko jende edukiera hasieran behintzat mugatua izango denez, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak lehenatasuna emango die elgoibartarrei eta Patronatuko abonatuari. Hortaz, Mintxetako igerilekuetarako sarrera, oraingoz behintzat, elgoibartarrei eta Patronatuko abonatuari mugatuko zaie. Abonatuak hurbiltasuneko txartelarekin sartuko dira, hatz-markarekin sartzeko aukera bertan behera utzi dugulako. Era berean, eguneko sarrera elgoibartarrek bakarrik erosi ahal izango dute. Hurbiltasuneko txartelik ez duten abonatuak [olaizagaharrera@hotmail.es](mailto:olaizagaharrera@hotmail.es) helbidean eskatu dezakete txartela.

♦ **Uretan, aldiz, 75 lagun egon ahal izango dira igerileku handian eta 15 txikian. Nola zainduko duzue hori? Bainurako denbora mugatua izango da?**

Uretako edukiera gainditzen denean, sorosleek fitxa batzuk banatuko dituzte, erabiltzaileei txanda emanez, eta uretako egonaldia ordu erdira mugatuko da, orduerdi txanda aldatuz. Neu-

*“Uretako edukiera gainditzen denean, sorosleek fitxak banatuko dizkiete erabiltzaileei txanda emanez, eta uretako egonaldia ordu erdira mugatuko da”*

rri honekin ahalik eta jende gehienak freskatu bat hartu ahal izatea espero dugu. Hala ere, ez da ohiko erabilera izango eta jendeak hori ulertzea nahi dugu.

♦ **Belargunea 220 partzelatan bereiztuko duzue. Bakoitzak nahi duen partzela aukeratu ahal izango du?**

Partzela bakoitzak 4x4 metro (16 metro koadro) izango ditu eta bertan familiak, banakakoak, bikoteak eta gehienek 4 laguneko taldeak sartu ahal izango dira. Pertsona gehiagoko taldeek partzela bat baino gehiago okupatu beharko dute. Printzipioz

nahi den partzela aukeratu dezakete, baina partzelerara sartzeko pasilloak errespetatu beharko dira bakoitzak bere partzela bakarrik zapalduz. Laguntza behar izanez gero sorosleei edo harrerako langileei laguntza eskatzeko aukera egongo da, eta hauek laguntzeko prest egongo dira. Jendeari erantzukizunez jokatzeko eskatzen diogu, eta uneoro bi metroko distantzia mantentzea.

♦ **14 urtetik beherakoak heldu baten zaintzapean egon beharko dira uneoro.**

Adin tarte horretara arte gurasoen erantzukizupean egongo dira. Egoera berezia da, eta neurriak ere bereziak behar dute izan. 14 urteko adin hori beharrezkoa dela iruditzen zaigu, beste inor gainean izan gabe, arauak betetzeko.

♦ **Higienea eta desinfekzioa areagotu egingo duzue. Zenbat aldiz garbituko dituzue instalazioak? Eta, igerilekuetako ura zenbatean behin aldatzen duzue?**

Instalazioa ireki baino lehen garbiketa sakona egingo da, Gobernuak ezarritako neurriak kontuan izanik. Instalazioa irekita da-



goenean berriz, komunak 12:30ean, 15:30ean eta 18:30ean garbituko dira. Eguneko 24 ordutan funtzionatzen du uraren depurazio automatikoak. Egunean igerileku handiaren %10eko ur bolumena aldatzen da, eta igerileku txikian lau orduko aldatzen da, ur kantiitate guztia.

♦ **Olaizaga kiroldegia irailera arte guzxienez itxita egongo da. Zergatik?**

Barruko igerilekuetan segurtasun eta higiene neurriak betetzea oso zaila delako. Lau kale besterik ez ditugu, kale bakoitzean erabiltzaile bakarra egon daiteke igerian, aldagelen erabilerak ezartzen dituen neurriak, hezetasun baldintzetan dagoen arriskua, e.a. Gaur egungo egoera eta baldintzetan, barruko igerilekuan ezin ditugu ziurtatu segurtasun eta osasun-baldintzak. Eta Olaizaga itxita edukitzeak baliabide guztiak Mintxetan jartzeko aukera ematen digu.

♦ **Mintxetako kirolgunea ere mugekin ireki duzue. Ikastaroak, esaterako, IMHko kantxan emango dituzue.**

Segurtasun distantzia mantentzeko dauzkagun azalera handiko espazioak aprobetxatuko ditugu. IMHn eman ditzaiegu talde handiko jarduerak, baina spinning gela ere erabiliko dugu edukiera mugatuz (20 bizikleta). K-stretch eta yoga jarduerak Mintxetako aerobik gelan emango ditugu, gehienez 10 pertsonako taldeetan.

♦ **Erabiltzaile asko kirol ikastaroen ostean lanera joaten dira zuzenean eta aldagelak itxita egoteak eragozpenak sortuko dizkie. Ez dago modurik aldagelak irekitzeko?**

Espainiako Gobernuaren SND/414/2020 maiatzaren 16ko ordenak argi adierazten du aldageletako duxak ezin direla erabili eta aldagelak erabiltzekotan banaka erabili beharko direla. Gainera, erabilerak bakoitzaren ondoren aldagela garbitu egin behar da. Erabilerak hori kontrolatzen eta garbiketa egiten egunean bederatzi orduz pertsona bat izan beharko genuke.... Egoera ez da normala eta normalitate berrira ohitu beharko gara. Poliki-poliki egoera nola garatzen doan ikusiko dugu, eta aldaketak ere gradualki egin daitezke, baina hasiera batean zatika kontrolatzen hastea da gure asmoa.

♦ **Igerilekuak zabalduko dituzue, baina, aldiz, Kirol Campusa bertan behera lagatzea erabaki duzue. Zer dela-eta?**



*“Kirol Campusa kontakturik gabe eta distantziak mantenduz antolatzea ezinezkoa da”*

Kirol Campusa kontakturik gabe eta distantziak mantenduz antolatzea ezinezkoa da. Materiala ere elkarbanatu behar da eta Gobernuak ezarritako neurriak betetzea, gure ustez, ezinezkoa da kirol ekintzetan, une honetan behintzat.

♦ **Irailetik aurrera nola aurreikusten duzue egoera?**

Irailerako egoerak onera egitean espero dugu eta normaltasun berrira egokitu beharko dugu gure eskaintza. Ikastaro batzuk ekainean berreskuratuko ditugu eta irailan baldintza hobekia izatea espero dugu haur eta helduen ikastaroak berreskuratuzko.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Uztailian eta abuztuan adinekoak zaintzeko pertsona bat behar dugu, orduka.  
☎ 615 006 733

Bi plazako sofa berria oparitzen dugu.  
☎ 615 006 733

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 493 913

Adinekoak zaintzeko, garbiketa edo baserriko lanak egiteko prest nago.  
☎ 631 820 135

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzez eta asteburuetan ere bai. ☎ 689 003 537

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 643 115 699

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arduratsua naiz. ☎ 685 386 485

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 649 044 223

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. ☎ 615 526 482

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo asteburuetan. Erizain titulua eta esperientzia ditut.  
☎ 631 836 738

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo asteburuetan. ☎ 638 963 048

Edozein lan egiteko prest nago, 8:00etatik 11:00etara eta asteburuetan edozein orduan. ☎ 632 893 515

Hirugarren mailako Pedagogia ikaslea umeak zaintzeko edo eskola partikularrak emateko prest. Euskalduna naiz eta begirale titulua daukat. Ordu-tegi malgua.  
☎ 697 672 908

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka eta gauzez ere bai.  
☎ 611 306 391

**ETXEBIZITZAK.....**  
Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ 632 642 320

**BESTELAKOAK.....**  
Edozein lan egiteko prest nago, 8:00etatik 11:00etara eta asteburuetan edozein orduan.  
☎ 620 710 139

Guretzat balio handia duen egurrezko panda bat galdu genuen Leku Ederren, topatu duenari eskertuko genioke Udaltzaingoa lagatzea.

**BARREN sare sozialetan**

facebook.com/barrenaldizkaria    twitter.com/barreneus    instagram.com/barrenaldizkaria



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Gure komunitateko jabe batek obra handiak egingo ditu bere etxean solairu ezberdinetan kokatutako bi etxebizitza barrutik eraberritzeko, biak elkartzuz. Horretarako komunitatearen baimena behar duen jakin nahi nuke.**

Zimenduak, karga-hormak eta, oro har, egitura funtsezko elementu komunak dira, eta, ez dira elementu pribatiboak. Hala ere, baliteke estatutuek aprobetxamendu berezia ahalbidetzea elementu horiei, banakako jaberren baten edo batzuen onurarako, baldin eta horrek ez badio kalte egiten komunitatearen interes bateratuari. Hori gertatzen da lokal baten barruan solairuartera eraikitzeke baimenarekin, baldin eta lokal horren bolumenak horretarako aukera ematen bada, eta lokalaren egitura eraikinaren beraren gainean jartzen bada. Baimen hori ez da baliozkoa izango baimen horren eta egindako jarduketan ondorioz higiezinari kalte erreala eragiten bazaio. Beraz, nahiz eta informazio hori eduki, beharrezkoa izango da Komunitateak egin nahi diren jardueren xehetasunak ezagutzea. Eraikinaren egitura, osatzen duten elementu guztiekin batera, elementu komuna denez, Jabeen Komunitatea behar-tuta dago hura mantentzera eta, ondorioz, hura kontserbatzea eta osorik gordetzea eskatzen duten ekimen guztiak abiaraztera, bai eta estatutuek kasu bakoitzean komunitateei zilegi zaien aprobetxamenduak eskatzen dituenak ere.

**Gomendioa: oro har, ezin da inolako obrarik egin higiezinaren edozein egitura-elementuren gainean, gainerako jabeekideen ahobateko adostasunik gabe. Beraz, jarduketa txikiak egituraren gainean duten irismena zehazteak kasuistika bakoitza modu partikularrean aztertzea eramango luke.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Noa**, ostegunean 8 urte potolo bete zenuelako. Ondo pasatuko etxekoan, etxekoan partez.




Zorionak, **Elene**, ekainaren 18an 6 urte egingo dituzulako. Familiako guztien eta bereziki, ahizpa Sararen partez.



Zorionak, **Endika!** Aurten 11 urte! Enpate! Segi beti bezain jator eta alai. Markel eta Danelen partez.



Zorionak, **Maria**, astelehenean 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Nahia** eta **Izar**, zapatuan eta domekan zuen urtebetetzeak direlako. Muxu handi bana, etxekoan partez. Ondo pasa!



Zorionak bi **eder** hauei. Oso ondo pasatu genuen denok elkarrekin. Muxu handi bana.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

## AGENDA

### 15 ASTELEHENA

**19:00** Pentsiodunen elkarretaratzea. Marlan bilduko dira, San Lazaro egoitzako langileei eskerrak emateko.

### 17 EGUAZTENA

**18:00** Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: *Dolua alarma egoeran*. Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, Zoom plataforma digitalaren bidez. Saioan parte hartzeko lotura eskatzeko [berdintasuna@elgoibar.eus](mailto:berdintasuna@elgoibar.eus) helbidera idatzi behar da.

**18:30** Elgoibarko Idazlan lehiaketako sari banaketa. Haur, nerabe eta gazteen sustapeneko Sailak eta Euskara eta Kultura Sailek antolatuta. Aita Agirre kulturgunean.

### 19 BARIXAKUA

Ludotekako argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna. 5 eta 12 urteko haurrentzako lehiaketa da. Gaia: Elgoibarko udaberriko loreak. Whatsapp: 656 740 793 / [ludotekaelgoibar@gmail.com](mailto:ludotekaelgoibar@gmail.com)

**21:00** Zine foruma: *La boda de Muriel*. Haizea emakume taldeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

12 BARIXAKUA	13 ZAPATUA	14 DOMEKA	15 ASTELEHENA	16 MARTITZENA	17 EGUAZTENA	18 EGUENA	19 BARIXAKUA
Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez *Ibañez *Yudego	Egunez *Ibañez	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b>	Egunez *Fernandez	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984




Hodei  
Malvar  
Ibañez,  
5 urte,  
Elgoibar


"Egun bat familian paseatzen: aita, ama, Nahia eta Hodei."



Martin  
Mujika  
Cid,  
6 urte,  
Elgoibar

"Piratak erasotzeko prest."





## Antonio Leon Navarro

2020ko apirilaren 14an hil zen, 53 urte zituela. Haren oroimenez hileta meza izango da, astelehenean, ekainaren 15ean, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



## M<sup>a</sup> Luisa Abarrategui Leaniz-Barrutia

2020ko ekainaren 10ean hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Familiaren izenean Elgoibarko San Lazaro egoitzako guztioi eskerrik asko gure amarekiko izan duzuen arreta eta maitasunarengatik*



V. URTEURRENA

## Garbiñe Iriondo Aristondo

2015eko ekainaren 13an hil zen.

***Izan zarena, erakutsi duzun kemena,  
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



V. URTEURRENA


## Garbiñe Iriondo Aristondo

2015eko ekainaren 13an hil zen, 47 urte zituela.

***Udaberriarekin batera, urtero bezala,  
ekainaren hamahirua utzi dugu atzean.  
Gugandik joan zinen arren, Garbiñe maitea,  
eman zenigun maitasuna dago gure artean.***

***Begirada eta irribarre eder haiek  
betirako ditugu gure bihotzean.  
Zure oroitzapenak gurekin dirau  
mendian landaturiko haritzean.***

Zure kuadrilla





**KALITATEZKO KOLTZOIEK GARAI ZAILENETAN ERE LOA GOZATZEN DUTELAKO**

**San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)**



*Ferpi*  
**Outlet**

**630 755 356**

**%70era arteko  
beherapenak**

ferpi moda elgoibar



- Hongo, Divas... etxeetako udako jantziak likidazioan.
- Galtzak eta gonak: **19 €tan**
- Kamisetak : **12 €tan**
- %70 deskontuak soineko, beroki , pitxietan...
- Erakusleihoan eskaintza bereziak jariko dira egunero, etorri eta ikus itzazu!
- **Bernardo Ezenarro 15, Eroski parean** aurkituko gaituzu.

**M M Meka**  
Lanbide Eskola

**AURREMATRIKULA**  
**Ekainaren 1etik 19ra**

**ERDI  
MAILA**

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA  
MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA  
IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA  
MENPEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN  
PERTSONEI ARRETA  
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA  
ERIZAINTZAREN LAGUNTZA  
KARROZERIA

**GOI  
MAILA**

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK  
AUTOMOZIOA  
HAUR-HEZKUNTZA  
METAL ERAIKUNTZAK  
GIZARTERATZEA



Praktikak Atzerrian,  
Duala, Orientazioa,  
Lan Poltsa...

**Fp**  
EUSKAL FAMILIA  
ENPREZAK



Tel. 943 748 019 · [www.meka-elgoibar.eus](http://www.meka-elgoibar.eus)